**AZPEITIA** SANTIYO EGUNA



Aurtengo sagardo leihaketan herritarrek bere balorazioa emateko aukera izango dute.

Saninazioak hasi ez badira ere, azpeitiarrek zerbait ospatzeko aitzakia izango dute Santiyo egunarekin

# Sagardo eta gazta lehiaketa, ganadu erakusketa eta desenkajonamendua gaur

**ELI AIZPURU**

AZPEITIA. **DV.** Festa usaina nabaria da dagoeneko herrian. Jai ofizialak, saninazioak, datorren astera arte hasiko ez badira ere, hasi dira festa egunak herritarrentzat. Gaurkoa, Santiyo Eguna, azpeitiarren agendan erreserbatutako eguna da. Eguerditik jai giroan hasi eta berandu arte amaitzen ez den horietakoa. Herriko Musika Bandak eta Izarraitz Txistulari taldeak, goiz eresiarekin hasiko dute eguna. 11etan, ganadu erakusketa eta txapelketa izango dira. Aurtengoan, gainera, Euskadi mailako txapelketa izango da. Gazta lehiaketari ere ordu berean emango zaio hasiera. Idiazabal jatorrizko deituraren barne dauden hainbat artzai gazta probatzeko aukera izango da.

Eta gazta lehiaketa, jada X. edizioan, ohikoa bihurtu bada, are gehiago sagardo lehiaketa. 36. edizioa du aurten eta 12etatik aurrera 23 sagardogile izango dira lehiaketan.

Oholtza gainean, epaimahaikideek izango dute nahikoa lan sagardo onena hautatzen baina herritarrek ere beraien balorazioa eman dezakete postu desberdinetan sagardoa probatuz. Edalontziak 2 eurotan ipiniko dira salgai eta txekor eta hegaluze pintxoak ere eskainiko dira. Iazkoan ez zuten ez arrakasta makala izan hegaluze pintxoek eta orduan bezala, bildutako dirua, Indiara bideratuko da, Bangladeseheko Maiwet (Meghalaya) basoan lanean ari den Elena Albizurirentzat.

Zezen zaleak desenkajonamenduarekin gozatzeko aukera izango dute, 18:30ean. Nahidekena txarangak alaituko ditu gero kaleak eta gauean, Eko-ren euskal kantak, Enparantzan, 22:00an.

### Cesar Valverde Saria

Bestalde, urtero Santiyo Egunean egiten diren gaztetxoen arteko finalak igande goizean jokatuko dira, gaur azpeitiarrak Iruñan baitira beste final handi batean, Euskal Herriko Herriarteko Esku pilota Txapelketaren finalean.

Aurrean, Nafarroako txapeldunak dituzte, Huartekoak eta irabaziz gero, izango da bai herrian ospaketetarako beste aitzakia bat. ■

---

plante del corazón de un inmueble a otro con el fin de que volviera a latir como en épocas pasadas.

La operación, financiada por el Ayuntamiento de San Sebastián, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, concluyó con la instalación en la primera planta de la maquinaria que décadas atrás dotaba de vida a la emblemática si-

ta baja de diversos objetos. Se trata de una selección de las 160 piezas donadas igualmente por las hermanas Urrestarazu que, en su día, fueron utilizadas en su negocio. Desde mesas con sus bancos a cajas de madera para el transporte de botellas, pasando por vajillas, baúles dotados de asideros, garrafones

otros artículos.

A pesar de que no todos esos enseres han podido ser expuestos en Katxola «por falta de espacio», como aseguran desde Lantxabe, los integrantes de esta asociación vecinal no descartan que más adelante sean mostrados al público de forma temporal. Algunos de los que sí han en-

bre. «Coincidiendo con el prensado de la manzana, haremos sidra, pero ésta no estará destinada a la venta ni al consumo generalizado, sino que se producirá con carácter experimental, para que la gente pueda ver el proceso de elaboración», indican desde la Asociación de Vecinos Lantxabe. ■